

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko martxo

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Inflazioa

3. Kanpo merkataritza

4. PMI konposatua

5. Sentimendu ekonomikoa

6. Consensusen aurreikuspenak

Eranskina

1. **Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean.**

Hazkundera biziagoa izan zen emakumeen artean (%1,2) gizonen artean baino.

2. **Inflazioa %3,5ean kokatu da urte hasieran.**

Azpiko inflazioaren hazkundera %2,9ra apaldu da.

3. **EAEtik atzerrira bidalitako esportazioak %5,1 jaitsi ziren 2024an.**

Frantzia izan zen, urte horretan, EAEko produktuen helmuga nagusia.

4. **Euroguneko PMI konposatuak adierazten du hazkundera oso txikia dela.**

Manufakturrek susperraldi arina erakusten dute, baina eremu negatiboan mantentzen dira.

5. **Euroguneko sentimendu ekonomikoak ezkortasun txiki bat erakusten jarraitzen du.**

Industriak bere emaitza hobetu du, baina batezbesteko historikotik urrun dago oraindik.

6. **Munduko ekonomiarako aurreikuspenak egonkor mantendu dira.**

Consensus Forecast-ek %2,6ko hazkunde tasa aurreikusten du aurten munduko BPGarentzat.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean urte arteko tasan, eta erritmoa zertxobait moteldu zen aurreko hilabeteetan erregistratutako tasekin alderatuta. Guztira, 1.017.897 afiliazio izan ziren, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 10.330 gehiago. Azken hamazazpi hilabeteetan, 2024ko abuztuan izan ezik, milioi bat afiliazio baino gehiago erregistratu dira beti.

Sexuaren araberako azterketak adierazten du emakumeen enpleguak orain arte izan duen dinamismo handiagoari eutsi diola. Hain zuzen ere, urte arteko aldakuntza tasa %1,2koa izan zen kolektibo horretan, eta gizonen artean, berriz, %0,9koa. Beraz, afiliazio berri guztietatik 5.777 emakumeenak izan ziren, eta gainerako 4.552 afiliazioak gizonek bete zituzten.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

OTSAILEKO AFILIAZIOA


%1,0



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen eta jarduera adarren arabera, haute-maten da industriak aurreko hileko hazkunde erritmoari eutsi ziola (%0,5), eta eraikuntzak bere emaitza hobetu zuela, %1,1eko tasara iritsi arte, hau da, bi urteko tasarik altuenera. Hala eta guztiz ere, zerbitzuen afiliazioan dezele-razio txiki bat ikusten da, %1,2ko tasa izan bai-

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



tzuten, azken bi urteetako txikiena, nahiz eta berriro ere afiliazio berri gehienak biltzen dituen sektorea izan. Osasun arloko jardueretan, hezkuntzan, jarduera profesionaletan, garraioan eta ostalaritzan izandako igoerak nabarmen-tzen dira, adar horiek guztiek 1.500 afiliatitok gorako igoerak izan baitituzte.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2024ko otsaila	2025eko otsaila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.007.567	1.017.897	10.331
Industria manufakturagileak	174.292	174.963	671
Merkataritza	134.382	133.977	-405
Osasun arloko jarduera	111.983	114.047	2.063
Hezkuntza	85.117	87.032	1.915
Ostalaritza	69.574	71.096	1.522
Administrazio jarduerak	67.669	68.508	838
Lanbide jarduerak	63.135	64.871	1.735
Eraikuntza	58.417	59.051	634
Administrazio publikoa	52.433	52.509	76
Garraioa	45.442	46.968	1.526
Informazioa eta komunikazioa	27.594	28.028	434
Etxeko langileak	29.051	27.755	-1.295
Bestelako zerbitzuak	27.217	27.023	-194
Jarduera artistikoak	19.649	20.062	413
Finantza jarduerak	17.094	17.418	324
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.413	11.158	-255
Ur horniketa	6.391	6.617	226
Higiezin jarduerak	4.347	4.418	70
Energia horniketak	1.749	1.748	-1
Erauzketa industriak	532	560	28
Lurralde kanpoko erakundeak	83	90	7


Iturria: Gizarte Segurantza.

INFLAZIOA

Inflazioa %3,5ean kokatu da urte hasieran

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Urtarrileko KPIak %3,5eko balioa izan zuen, aurreko urteko azken hileko erregistrotik hamarren bat beherago. Horrela, urrian hasitako goranzko joera gelditu egin zen. Aurreko aldietan bezala, bilakaera hori batez ere erregaien garestitzeak eragin zuen, eta, neurri txikiagoan, elektrizitatearen prezioen igoerak ere.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2025eko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,5	3,5
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,9	2,5
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	3,4	0,5
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,4	0,3
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,4	1,7
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	6,7	1,0
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	3,8	0,2
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	8,9	0,8


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Beraien gaineko BEZa igo bazen ere, elikagaien prezioek hazkundera apaltzen jarraitu zuten, oli-oaren prezioek izan zuten jaitsiera handiak mesede eginda. Era berean, elektrizitateak BEZaren inpaktua nabaritu zuen, %21era itzuli baitzen, 2024ko abenduaren 31ra arte aplikatu zen tasa %10 izan baitzen. Era berean, petrolioaren igoeraren eraginak, aurreko urteko jaitsieraren aldean, erregaien prezioak garestitzea eragin

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



zuen. Osagai horien bilakaera dela eta, garraio taldeak 2024ko erregistro negatiboak utzi zituen (%1,4), eta etxebizitza izan zen, berriz ere, guztien artean prezioak gehien garestitu zuen taldea (%8,8). Aitzitik, aurreko hilaren aldean gutxien igo ziren taldeen artean aisialdia eta kultura nabarmentzen dira, %4,4tik %2,3ra igaro baitzen, pakete turistikoaren bilakaeraren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,5	2,9	2,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,3	1,8	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,8	4,3	5,2
Jantziak eta oinetakoak	2,1	-0,1	-0,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	8,8	7,9	3,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,7	0,6	-0,1
Osasuna	2,5	2,0	3,4
Garraioa	1,4	1,3	2,0
Komunikazioak	1,3	1,2	-3,1
Aisia eta kultura	2,3	1,9	2,8
Hezkuntza	2,3	2,5	4,0
Jatetxeak eta hotelak	4,0	4,3	4,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,0	3,7	4,2

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.



EAetik atzerrira bidalitako esportazioak %5,1 jaitsi ziren 2024an


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA

2024

-%5,1




Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, 2024an atzerrira esportatutako ondasunen kopurua %5,1 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta. Guztira, salmentak 31.000 milioi eurora hurbildu ziren, serie historikoko hirugarren baliorik handiena, aurreko bi ekitaldien emaitzek bakarrik gainditu dutena. Analisi zehatzak agerian uzten du salmenten murrizketa produktu energetikoen salmentan zein gainerako

produktuetan gertatu zela. Lehenengo kasuan, jaitsiera %1,4koa izan zen, eta bigarrenean, berriz, %5,4koa.

Inportazioei dagokienez, emaitzak positiboagoak izan ziren eta igoera txiki bat izan zen, %0,9koa, produktu energetikoen erosketak izan zuen hazkunderari esker (%4,0), gainerako produktuek profil laua erakutsi zuten bitartean (%-0,1). Kasu honetan, bigarren daturik altuena da, 2022koaren ondoren.


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK

Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2024

Herrialdea	%
Frantzia	15,7
Alemania	14,5
Erresuma Batua	7,0
AEB	6,4
Italia	5,8
Belgika	5,0
Portugal	4,5
Herbehereak	3,7
Mexiko	2,7

Herrialdekako azterketaren arabera, Frantzia izan zen EAEko ondasunen helmuga nagusia atzerriko herrialdeen artean eta Alemaniari lehen postua kendu zion, haren ekonomiak ahulezia erakutsi baitzuen urtean zehar. Europakoak ez diren herrialdeen artean, AEBak laugarren postura jaitsi ziren, jaitsiera handiarekin (-%27,9), batez ere erregai mineralen salmenta txikiagoagatik (-%69,2), baina baita gainerako ondasunena ere (-%18,6).


ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2024

Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	49,0
Makinak eta aparatuak	21,9
Garraio materiala	27,1
Metal arruntak eta manufakturak	21,4
Produktu mineral, energetikoak	6,6
Plastikoa eta kautxua	5,9
Nekazaritzako produktuak	5,3
Produktu kimikoak	2,9
Papera	2,6

Esportatutako ondasun motari dagokionez, salmenten ia erdia (gutzizkoaren %49,0) ekipamendurako ondasunei dagokie, atalaren barnean makinak eta aparatuak (%21,9) eta garraio materiala (%27,1) daudelarik. Metal arruntek eta horien manufakturek ere leku nabarmena dute rankingean (%21,4). Gainerako taldeek aipatutakoak baino askoz ehuneko txikiagoak izan zituzten. Adibidez, erregai mineralak %6,6 bereganatu zuten.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





PMI KONPOSATUA


Euroguneko PMI konposatuak adierazten du hazkundera oso txikia dela

Otsailean, euroaren eremuko PMI konposatua 50,2an kokatu zen. Beraz, aurreko hilabetearekin alderatuta ez da aldaketarik egon. 50 puntu-ko langa gainditzen duenez, euroguneko ekonomia hedatzen ari da, nahiz eta hazkunde erritmoa oso txikia izan. Eskaera berrien sarrerak behera egin zuen berriro, langileen mailak eta enpresen konfiantzak bezala. Gainera, kostuek eta salmenta prezioek gora egin zuten. Bi sekto-


re nagusiek bilakaera kontrajarriak dituzte. Alde batetik, zerbitzuak (50,7) hedapen eremuan mantendu dira, baina otsaileko datua urtarrilean erregistratutakoa baino nabarmen txikiagoa da. Aitzitik, manufakturak (48,9) jarduera murrizteko eremuan daude berriro, nahiz eta hobekuntza handia den aurreko hilabetearekin alderatuta. Izan ere, azken bederatzi hilabeteetako daturik onena da otsailekoa.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2025EKO OTSAILA
50,2




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdekako analisiak behetik gorako profila eskaintzen du Alemaniaren kasuan, emaitza 51,0raino igo baita manufakturen suspertzeari esker (48,5). Aitzitik, Frantzian (44,5) okertzea oso esanguratsua izan da, eta azken hamazazpi hilabeteetako daturik txarrena jaso du, zerbitzuen beheranzko bilakaeragatik (44,5).

Euroaren eremutik kanpo, deigarria da AEBetako indizeak okerrera egin izana, bost puntu galdu baititu bi hilabetetan, eta otsaileko datua 50,4koa izan da, zerbitzuen beherakada nabarmenagatik (49,7). Ezkortasun horren arrazoia gobernu federalaren politikak sortu duten ziurgabetasuna da.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




SENTIMENDU EKONOMIKOA

Euroguneko sentimendu ekonomikoak ezkortasun txiki bat erakusten jarraitzen du

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2025EKO OTSAILA

96,3




Otsailean, Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoak hobekuntza txiki bat izan zuen aurreko hilabeteekin alderatuta. Hain zuzen ere, euroguneko indizea 96,3raino igo zen, eta indize hori oraindik ere batezbesteko historikoaren (100) azpitik dago. Atalkako analisiak adierazten du industria dela batez bestekotik gehien urruntzen dena, azken bi hilabeteetan norabide onean urratsak eman dituen arren.

Familien konfiantzak ere zertxobait hobetu ditu emaitzak, baina oraindik ez da gai irudi baikorrik erakusteko. Beste aldetik, zerbitzuak batez bestekoaren inguruan kokatu dira, gorabehera txiki batzuekin. Txikizkako merkataritzak eta, bereziki, eraikuntzak hainbat hilabete ka-teatu dituzte baikortasuneko eremuan murgilduta. Europar Batasunaren egoera eurogunekoaren antzekoa da, baina bere indizea 97,1ean dago kokatuta.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2025EKO OTSAILA

97,1




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdekako azterketak erakusten du euroaren eremuko lau ekonomia nagusietan alde handiak daudela. Deigarria da Alemaniaren kasua (89,3), egoera normalizat har litekeenaren oso azpitik dagoelako. Eraikuntza izan ezik, gainerako atal guztiak batezbesteko historikoaren oso azpitik daude, bereziki industria, baina baita zerbitzuak ere. Frantziaren kasuan (98,3), hilabete batzuetan erakutsi duen ahultasuna amai-erara iristen ari dela dirudi, nahiz eta atal batzuk, hala nola txikizkako merkataritza eta eraikuntza, baikortasunetik urrun dauden.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italiak (99,8) urtebete baino gehiago darama bere batez besteko historikotik oso hurbil dauden balioak erregistratzen, alde batera edo bestera aldaketa gutxirekin. Eraikuntzan eta txikizkako merkataritzan indar handia hautematen da. Azkenik, Espainia (102,3) da batez bestekoaren gaineratik argi eta garbi geratzen den herrialde bakarra, nahiz eta azken hilabeteetako gorabeherak nabarmenak diren. Eraikuntzaren une ona azpimarratu behar da, baina industriak indar pixka bat galdu du.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.


Munduko ekonomiarako aurreikuspenak egonkor mantendu dira

Otsailean, Consensus Forecastseko panelak munduko ekonomiarako aurreikusitako hazkundea %2,6an mantendu zuen, aurreko hilabeteetako tasa bera. 2025az galdetzen hasi zenetik, 2024ko urtarrilean, panelaren emaitza hamarren bat baino ez da mugitu. Hala ere, hazkunde horren osaera aldatu egin da lurralde bakoitzaren arabera.


Hala, ikuspegi ezkorra euroaren eremuan hautesman da. Izan ere, 2024aren hasieran egonkortasun nabarmena zegoen aurreikuspenean, baina udatik ikusi du aurreikuspenak okerrera egiten zuela, otsailean %0,9an utzi arte. Aitzitik, AEBetako ekonomiaren egonkortasuna irailera arte mantendu zen, eta ordutik goranzko berrikuspenak egin dira, egungo %2,2raino.

MUNDUKO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK


AURREIKUSPENA 2025ERAKO
%2,6




EUROGUNERAKO AURREIKUSPENAK



AEBETARAKO AURREIKUSPENAK




ALEMANIARAKO AURREIKUSPENAK



Euroaren eremuko bi motorren aurreikuspenek nabarmen okerrera egin dute iazko erdialdetik. Alemaniaren kasuan, ekainean aurreikusi zen tasa ekaineko %1,2 izan zen eta argitaratutako azken hilabeteen tasa hori %0,3ra apaldu da. Frantzia, moderazioa pixka bat txikiagoa izan da, eta egungo batez besteko aurreikuspena %0,7koa da. Italian ere beheranzko joera dago, mugimendu leunagoekin bada ere.


Kontrako aldean dago Espainia, aurreikuspenak %1,8an hasi baitziren eta pixkanaka hobera egin du ekainetik gaur eguneko %2,4ra arte, hein batean estatistika institutuak egin zuen goranzko berrikuspenengatik.

ITALIARAKO AURREIKUSPENAK




Iturria: Consensus Forecasts.


FRANTZIARAKO AURREIKUSPENAK



ERRESUMA BATURAKO AURREIKUSPENAK



ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023		2024			
			III	IV	I	II	III	IV
BPG	2,7	2,1	2,5	2,3	2,2	2,0	2,0	1,9
Barneko azken kontsumoa	1,7	--	1,1	1,8	--	--	--	--
Familien kontsumoa	1,9	--	1,2	1,9	--	--	--	--
Administrazioaren kontsumoa	1,3	--	0,8	1,8	--	--	--	--
Kapital eraketa gordina	1,8	--	1,5	2,0	--	--	--	--
Barne eskaria	3,1	--	2,6	3,1	--	--	--	--
Esportazioak	1,0	--	0,7	1,3	--	--	--	--
Inportazioak	1,8	--	1,2	1,9	--	--	--	--
Lehen arloa	1,0	--	0,3	-1,6	--	--	--	--
Industria eta energia	-0,2	--	-1,3	-2,0	--	--	--	--
Eraikuntza	2,6	--	2,3	1,8	--	--	--	--
Zerbitzuak	3,0	--	2,7	2,3	--	--	--	--
Balio erantsi gordina	2,8	--	2,6	2,3	--	--	--	--
ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	--	2,0	2,2	--	--	--	--
Enplegua	1,8	1,8	1,8	1,9	2,0	1,9	1,6	1,6

Oharra: Hiruhilekoko desagregazioa eguneratu gabe dago Eustaten aldetik. 2023ko aurrerapena eta 2024ko behin-behineko datuak.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urtarrila

2024											2025
Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.
82,0	84,5	91,4	97,4	99,3	96,4	95,9	98,8	95,1	97,9	96,3	99,4
X<50 Atzeraldia			50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia				

EAEko ekonomiaren termometroak 99,4ko balioan kokatu zen aurtengo urtarrilean, hots, aurreko sei hilabeteetako datuen zertxobait gainerik. Eskariaren osaerak datu ona erakusten du familien kontsumoaren eta kanpoko saldoaren hazkunde erritmoan, nahiz eta inbertsioaren zenbatespenak okerrera egin duen azken hiruhilekoari dagokionarekin alderatuta. Sektoreka, industriaren hazkundeak txikia izaten jarraitzen du, eta zerbitzuek, berriz, azken hilabeteetako baina erritmo pixka bat apalagoa erakutsi dute, enpleguak bezala.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024		2025				2025	2026
	IV	2024	I	II	III	IV		
BPG	1,8	1,9	1,8	2,0	2,1	2,0	2,0	1,7
Barneko azken kontsumoa	1,8	1,9	1,9	2,0	2,1	2,0	2,0	1,6
Familien kontsumoa	1,6	1,8	1,9	2,0	2,1	2,0	2,0	1,6
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,2	1,8	2,1	1,9	1,8	1,9	1,6
Kapital eraketa gordina	2,0	1,9	2,1	2,5	2,6	2,6	2,4	2,6
Barne eskariaren ekarpena	1,8	1,9	1,9	2,2	2,2	2,1	2,1	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	-0,2	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-3,4	1,1	-3,3	-3,0	-0,9	0,7	-1,7	1,3
Industria	0,6	0,8	1,0	1,8	1,4	1,5	1,4	1,6
Eraikuntza	2,0	1,6	2,1	2,5	2,2	2,1	2,2	2,3
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,0	2,1	2,3	2,1	2,1	1,7
Balio erantsi gordina	1,8	1,9	1,7	2,0	2,1	2,0	1,9	1,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,1	2,1	2,3	2,1	2,3	2,1	2,2	1,9
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,7	1,4	1,4	1,5	1,4	1,4	1,2
Landunak (BJA)	1,8	1,9	1,5	1,5	1,2	1,2	1,3	1,0
Langabezia tasa	7,2	7,4	7,3	6,8	6,6	6,7	6,9	6,7

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2026		2024	2025	2026
Ceprede	2,5	1,6	2,0	Eusko Jaurlaritza	1,9	2,0	1,7
Hispalink	2,5	2,2	2,0	Laboral kutxa	1,9	1,8	—
BBVA	2,4	2,4	1,9	Confebask	1,8	1,8	—
Funcas	2,3	—	—	Euskal Ganbarak	—	2,2	—

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023		2024		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,7	3,2	2,3	2,7	3,3	3,5	3,5
Kontsumo pribatua	1,7	2,8	3,0	2,1	2,5	2,9	3,7
Kontsumo publikoa	5,2	4,9	5,0	5,4	4,1	5,1	4,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	2,3	4,7	1,8	2,3	1,4	3,6
- Aktibo finko materialak	2,4	2,5	4,8	1,4	2,7	1,9	4,1
- Eraikuntzan	3,0	2,6	3,9	1,8	2,6	2,9	3,0
- Ekipamendu ondasunetan	1,1	2,3	6,3	0,5	2,7	0,0	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,0	1,2	4,1	3,8	0,7	-0,8	1,3
Nazio eskaria (ekarpena)	1,7	2,8	2,7	2,3	2,5	2,8	3,5
Esportazioak	2,8	2,9	0,7	1,7	2,6	4,6	3,0
Inportazioak	0,3	2,0	2,3	0,7	0,7	3,2	3,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
AFI	3,1	3,1	CEPREDE-UAM	3,0	2,3
BBVA Research	3,1	2,6	Funcas	3,0	2,3
Cámara de Comercio de España	3,1	2,1	Intermoney	3,0	2,1
CEEM-URJC	3,1	2,3	Mapfre Economics	3,0	2,3
CEOE	3,1	2,2	Universidad Loyola Andalucía	2,9	2,5
Equipo Económico (Ee)	3,1	2,4	CaixaBank Research	2,8	2,3
EthiFinance Ratings	3,1	2,4	Batez bestekoa	3,1	2,4
ICAE-UCM	3,1	2,3	Espainiako Bankua (2024-12)	3,1	2,5
Instituto Estudios Económicos	3,1	2,3	AIReF (2025-01)	3,1	2,5
Metyis	3,1	2,1	NDF (2025-01)	3,1	2,3
Oxford Economics	3,1	2,4	Europar Batzordea (2024-11)	3,0	2,3
Repsol	3,1	2,1	ELGA (2024-12)	3,0	2,3
Santander	3,1	2,3	Espainiako Gob. (2024-12)	2,7	2,4

Iturria: Funcas.

ESTADISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023		2024		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,9	2,8	3,2	2,9	3,0	2,7	2,5
Txina	5,2	5,0	5,3	5,3	4,7	4,6	5,4
Japonia	1,5	0,1	0,8	-0,9	-0,7	0,6	1,3
Kanada	1,5	1,3	1,2	0,8	1,1	1,5	1,7
Europar Batasuna	0,5	0,8	0,3	0,6	0,8	1,0	1,1
Eurogunea	0,4	0,7	0,1	0,4	0,5	0,9	0,9
Alemania	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2
Frantzia	0,9	1,1	1,3	1,4	1,0	1,2	0,7
Erresuma Batua	0,4	0,5	-0,3	0,3	0,7	1,0	1,5
Italia	0,7	0,5	0,3	0,3	0,7	0,5	0,5
Herbehereak	0,1	0,9	-0,6	-0,7	0,6	1,8	2,0

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO OTSAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	2,2	2,0	2,7	2,6	4,2	4,2
Japonia	1,2	0,9	2,6	1,8	2,4	2,4
Kanada	1,5	1,7	2,1	2,1	6,7	6,4
Europar Batasuna	1,2	1,5	2,1	2,0	—	—
Eurogunea	0,9	1,2	2,1	1,9	6,5	6,5
Alemania	0,3	1,0	2,2	1,9	6,2	6,1
Frantzia	0,7	1,0	1,4	1,7	7,7	7,7
Erresuma Batua	1,1	1,3	2,8	2,4	4,5	4,6
Italia	0,7	0,9	1,8	1,7	6,2	6,3
Espainia	2,4	1,9	2,2	2,0	—	—
Herbehereak	1,5	1,3	2,9	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.